

Agur Komisioak programa

Agur Komisioak programaren baldintzak (oinarriak) harpideturik dituzun kontu eta txartelen kontratuen zati banaezina izango dira, baina horretarako jarraian aipatzen diren baldintzak bete beharko dira.

Oinarri hauek Jorge García Llorente Notario Jaunaren aurrean protokolizatu ziren, 2020ko irailaren 30ean

PROGRAMAREN OINARRIAK

i. Agur Komisioak Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A.-ren (aurrerantzean BBVA edo Bankua) programa bat da, eta ondorengo baldintzak betetzen diren kasuetan, bezeroek ohiko eragiketa eta zerbitzuengatik komisiorik ez ordaintzeko diseinatu da.

ii. BBVAko bezero diren eta "Agur Komisioak ERANSKINA" (aurrerantzean Eranskina) izeneko eranskinean adierazten diren txartel eta kontuen titular diren pertsona fisiko guztientzako da.

iii. Abantaila hauek eskaintzen ditu:

Liburuxka aktiborik gabeko kontuan:

Kontu administrazio eta mantentze komisiorik ez.

Liburuxka aktibodun kontuan:

Administrazio komisiorik ez.

Mantentze komisio murriztua: 10 € urtean.

Liburuxka bat aktibotzat hartuko da azken 12 hilabeteetan eguneratu bada.

V. ataleko baldintzetako bat eta ondorengo baldintzetako bat betetzen bada, ez da mantentze komisiorik aplikatuko, ezta "Mantentze komisio murrizturik" ere:

- **Titularretakoren batek 30 urte baino gutxiago izatea, edo**
- **Gizarte Segurantzak agindutako aldizkako ordainketak jasotzea kontuan, kotizaziopeko pentsio eta pentsio osagarriei dagozkienak, eta hirurehun (300) eurokoak, gutxienez.**
- **Kontuaren titularretako bat (v.c) atalean adierazitako finantza produktu baten titular izatea eta produktu guztien saldoaren baturaren hileko batez bestekoa, hogeita bost mila (25.000) eurokoa izatea.**

Txarteletan:

Urteroko jaulkitze eta mantentze komisiorik gabe ERANSKINEAN adierazten den txarteletako bat titularraren izenean jaulkitako eta kontuan helbideratutako txartel batean.

- Kontuko titular bakoitzak **ezingo du txartel bat baino eduki komisio horretatik kanpo**. Titular baten izenean jaulkitako txartel bat baino gehiago dagoenean, urteroko komisio altuena izango da komisioa ordaintzetik kanpo geratuko dena, baldin eta urte horretan dagoeneko beste txartelen baten urteroko komisioa kendu ez bada.
- Titular baten izenean jaulkitako txartel bat baino gehiago dagoenean, **zenbatekorik handieneko urteko kuota duen txartelaren urteko kuota izango da ordainduko ez dena**, urte horretan beste txartelen baten komisioa kendu izan ezean. Zenbateko bera duten hainbat txartel badaude, kontratua sinatu den azkena izango da onura jasoko duena.

Txekeak:

Komisio eta gasturik gabe kontutik txekeak eurotan jaulkitzeagatik, ezta eurotan dauden txeke nazionalak sartzearen konpentsazio edo negoziazio **komisio edo gasturik** ere.

iv. Baldintzen berrikuspena eta komisio bakoitzaren likidazio egunak:

Konplimenduaren kontrola:

- BBVAk hilean behin aztertuko du programan sartutako kontu guztiek baldintzak betetzen dituzten ala ez.
- Momentuko hilabetearen aurreko hilabete naturalak hartzen dira kontuan berrikuspenean.
- Hilabete naturala, hileko lehen eta azken egunaren arteko epea da, biak barne.
- Baldintza bakoitzean adierazi da, adibide bat jarritz, zein diren baldintzak betetzeko berrikuspen bakoitzean kontuan hartuko diren hilabeteak.
- Likidazioari dagokion hilabetean ez badira v atalean (programaren baldintza bereziak) adierazitako baldintzak betetzen, kontu korrontearen kontratuan edota debitu edo kreditu txartelaren kontratuan adierazten diren komisioen kobrantzari buruzko baldintzak aplikatuko dira likidatutako epe guztirako, eta beraz, ez dira iii ataleko abantailak aplikatuko.
- Hileroko berrikuspenean kontuak baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzen bada, abantaila eta kontuaren mantentze eta administrazio komisioei hurrengo berrikuspenera arte eutsiko zaie, lotutako txartelak jaulki eta mantentzeko urteroko komisioari eta hilabete horretako txekeen jaulkipen eta konpentsazio komisioei era automatikoan aplikatuko zaie.

Komisio bakoitzaren likidazio datak:

- Kontuaren administrazioa eta mantentzea: kontuaren kontratuan aurreikusten den egunean egiten da. Likidazio maiztasun ohikoena sei hilekoa da (ekaina eta abendua), baina hiruhilero, hilero etab. likidatzen diren kontuak ere badaude.
- Txartela jaulki eta mantentzeagatik urteroko komisioa: txartelaren kontratuko baldintza berezietan adierazitako egunean egingo da.
- Txekeak jaulki eta konpentsatzeko komisioa: eragiketa egiten den egunean bertan.

v. Programaren betekizun espezifikoak:

Agur Komisioak programa bezero tipologia askotara egokitzen da, eta horretarako ondorengo egoeretara egokitutako baldintzak jasotzen dira:

a) Nomina eta aldizkako beste sarrera batzuk dituzten bezeroak	b) Autonomoak	c) 25.000 € baino gehiagoko bezeroak	d) BBVAko akziodunak
e) Gainera, bezero gazteek beren adinera egokitutako baldintzak dituzten Programa bete ahalko dute			

a) Nomina, pentsioa, langabezia-prestazioa edo aldizkako sarrerak dizuten bezeroak

Baldintza hau betetzeko, **jarraian adierazten diren tipologietako helbideratutako diru-sarrerak** jaso behar dira, eta gainera

ordainketei dagozkien baldintza berezietako bat (1) bete beharko da, gutxienez.

Helbideratutako diru-sarrerak: Titularretako batek jarraian azaltzen diren tipologietako diru sarrerak hilean behin bakarrik jasotzen dituenean, dagozkien gutxieneko zenbatekoekin eta kontzeptua aldatu gabe:

- **Nomina:** gutxienez zortziehun (800) euroko hileroko transferentziak jasotzen direnean kontuan, baldin eta transferentzia, transferentziak konpentsatzeko bankuen araudian ezarritako nominak abonatzeko kodifikazioari jarraiki igortzen bada.
- **Pentsioa:** kontuan Gizarte Segurantzak agindutako hileroko gutxienez hirurehun (300) euroko ordainketak jasotzen direnean, kotizaziopeko pentsio eta pentsio osagarriei dagozkienak.
- **Langabezia-prestazioa:** Kontuan Estatu Enplegu Zerbitzu Publikoak igorritako hileroko ordainketak jasotzen direnean, gutxienez hirurehun (300) eurokoak.

Aurreko 3 kasuetan, nomina, pentsio, langabezia baldintza betetzeko, izaera bereko diru-sarrerak jaso behar dira eta bakoitzean adierazitakoari jarraiki, gutxienez hileroko berrikuspenaren aurreko 4 hilabeteetako bitan (hileroko egiaztatuko da betebehari hori aurreko 4 hilabeteetako bitan betetzen den ala ez). Adibidez, ekainean; otsaila, martxoa, apirila eta maiatza egiaztatuko dira. Kontu batek otsailean nomina kontzeptuarekin ordainketa bat jasotzen badu eta apirilean pentsio kontzeptuarekin beste bat, ekaineko berrikuspenean, ez du baldintza hori bete.

- **Beste mota bateko aldizkako diru-sarrerak:** kontuan hileroko gutxienez zortziehun (800) euroko transferentzia, txeki diru-sarrerak edo diru intsuldaketak jasotzen direnean SEPA zordunketa bidez.
 - Hileroko diru-sarrera bakoitzak gutxienez zortziehun (800) eurokoa izan beharko du eta hileroko berrikuspenaren aurreko 4 hilabeteetako 3tan jaso beharko da (hileroko egiaztatuko da baldintza hori aurreko 4 hilabeteetako 3tan betetzen den ala ez). Adibidez, ekainean; otsaila, martxoa, apirila eta maiatza egiaztatuko dira.
- **BBVA Taldeak kudeatutako pentsio edo aurreikuspen planen prestazioak:** kontzeptu horrekin hileroko gutxienez hirurehun (300) euroko ordainketa unitarioa jasotzea kontuan.
 - Kasu honetan, hileroko berrikuspenaren aurreko lau hilabeteetako hirutan, gutxienez, jaso beharko da ordainketa (hileroko egiaztatuko da baldintza hori aurreko 4 hilabeteetako 3tan betetzen den ala ez). Adibidez, ekainean; otsaila, martxoa, apirila eta maiatza egiaztatuko dira.

Ordainketei dagozkien baldintza osagarriak: Hauetako bat (1) bete beharko da, gutxienez:

- **Ordainagiriak:** edozein igorlaren zerbitzuetan helbideratutako zordunketen 5 kargu izatea, gutxienez, hileroko berrikuspenaren aurreko 4 hilabeteetan, edo;
- **Txartelak:** ERANSKINEAN agertzen diren BBVA kreditu txartelen bat edukitzea kontuan helbideratuta, eta berrikuspenaren aurreko lau hilabete naturaletan gutxienez 7 erosketa eragiketa egiteko erabili izana. Eragiketa kreditu txartelean kargatu den eguna hartuko da kontuan txartelen eragiketa kopurua zenbatzeko.

b) Beren kontura merkataritza jarduerak edo jarduera profesionalak egiten dituzten titularrak:

Baldintza hau betetzeko, **jarraian adierazten diren tipologietako diru-sarrerak** jaso behar dira, eta gainera, **gutxienez ordainketei dagozkien baldintza berezietako bi (2) bete beharko dira.**

Diru-sarrerak: edozein modu erabiliz, gutxienez sei ehun (600) euroko diru-sarrerak egiten direnean kontuan, ondoren adierazten diren tipologietakoak:

Hileroko berrikuspenaren aurreko lau hilabeteetako 3tan gutxienez jaso behar dira diru-sarrerak kontuan. Adibidez, ekainean; otsaila, martxoa, apirila eta maiatza egiaztatuko dira.

Diru-sarreren tipologia:

- Esku-diru intsuldaketa, SEPA zordunketa bidez
- Helbideratutako zordunketa sorten ordainketa (ordainagiriak)
- Esku-dirua sartzea

- Txkeak sartzea
- Transferentziak
- Nekazaritzako ordainketa aginduak
- Factoring eta Confirming kontratuen operatibetatik datozenak
- Dokumentuak eta merkataritza-kredituak negoziatzenetik datozenak
- BBVArekin kontratatutako Saltokiko Terminal (ST) baten bitartez fakturatutakoagatik datozenak
- BBVA Taldeak kudeatutako aurreikuspen edo pentsio planen prestazioa.

Ordainketei dagozkien baldintza osagarriak: Hileroko ordainketen ondorengo bost baldintzetatik gutxienez bi (2) bete beharko dira:

- Gizarte Aseguru edo Eskola Profesionalen hileroko ordainketa
- Nominen hileroko ordainketa
- Estatuko, autonomiako edo herriko zergen hileroko ordainketa
- Edozein igorleren zerbitzua ordaintzeko helbideratutako zordunketen hileroko ordainketa (ordainagiriak)
- Txartelak: ERANSKINEAN agertzen diren BBVA kreditu txartelen bat edukitzea kontuan helbideratuta eta berrikuspenaren aurreko lau hilabete naturaletan, gutxienez, 7 erosketa eragiketa egiteko erabili izana. Eragiketa kreditua txartelean kargatzen den eguna hartuko da kontuan txartelen eragiketa kopurua zenbatzeko.

Ordainketa mota	Eskatutako baldintza	Betetzeko irizpideak	Adibidea
Gizarte Aseguru edo Eskola Profesionalak	175€ edo gehiago	Aurreko 4 hilabete naturaletako 2, gutxienez	Urriko berrikuspenean, ekaina, uztaila, abuztua eta iraila egiaztatuko dira
Nominak	600€ edo gehiago		
Estatuko, autonomiako edo herriko zergak	100€ edo gehiago	Aurreko 6 hilabete naturaletako 2, gutxienez	Urriko berrikuspenean, apirila, maiatza, ekaina, uztaila, abuztua eta iraila egiaztatuko dira
Ordainagiriak	Gutxienez 5 ordainagiri	Aurreko 4 hilabete naturaletan	Urriko berrikuspenean, ekaina, uztaila, abuztua eta iraila egiaztatuko dira
Txartelak	Gutxienez 7 eragiketa		

Oinarri hauetako eranskinean jasotzen diren kontuen titularren kasuan, beren jarduera CNO 0029 (Nekazaria) edo 0061 (Nekazaritza edo arrantza ustiapenen beren kabuzko langilea) barruan badago, atal honetako ordainketen inguruko baldintzekin bakarrik beteko da betekizun hori, eta ez du beharrezko izango kontuan diru sarrerak jasotzea.

c) 25.000 euro baino gehiagoko batez besteko hileko saldoa duten bezeroak

Baldintza hau betetzeko, **kontuaren titularretako bat finantza produktu baten titular izan beharko da eta produktu guztien saldoaren baturaren hileko batez bestekoa gutxienez hogeita bost mila (25.000) eurokoa izan beharko da.**

Hauetako, egunaren bukaeran, baldintzak betetzen diren ala ez kalkulatzeko kontuan hartuko diren finantza produktuak eta zenba-

tekoak:

- Inbertsio funtsak ETF, SICAV (ez dira Inbertsio Libreko Sozietateak sartzen)Pentsio Planak Unit Link: balio likidagarria
- PIAS BBVA, Europlazo BBVA, BBVA Errentak, BBVA Aseguratutako errentak, BBVA Errenta aldakorrak, BBVA Errenta geroratuak, BBVA PPA Errentak eta BBVA PPA Metatzea: saldoa ken zerga atxikipena

Enpleguko pentsio planak ez dira kontuan hartuko zenbaketa horretarako.

Baldintza hori, hileroko berrikuspena baino lehenagoko 4 hilabete naturaletako bitan bete beharko da, gutxienez. Adibidez, ekainean; urtarrila, otsaila, martxoa eta apirila aztertuko dira.

d) Akzioen titularrak:

Baldintza hau betetzeko, **kontuko titularretako batek gutxienez 1.000 akzio eduki beharko ditu BBVAn.**

- 1.000 akzioak kontu bakar edo balore erreferentzia bakar batean egon behar dira sartuta. Hainbat erreferentzian sartutako baloreak ez dira kontuan hartuko.
- Abantailez gozatzeko, ERANSKINEAN egoteaz gain, kontu operatibo gisa (kargu eta ordainketentzako) eduki beharko du balore kontua

Baldintza hori, hileroko berrikuspena baino lehenagoko 2 hilabete naturaletako batean bete beharko da, gutxienez. Adibidez, ekainean; apirila eta maiatza aztertuko dira.

e) Gazteak:

21 urtetik beherakoak

Baldintza hau betetzeko, kontuko titular denek 21 urte baino gutxiago eduki beharko dituzte.

21 urtetik 25ra, biak barne

Baldintza hau betetzeko, titular guztiak adin tarte horretan egon behar dira, eta gainera, kontuko lehen titularrak baldintza osagarri hauek bete beharko ditu.

- **Txartelak:** ERANSKINEAN aipatzen diren txarteletako bat kontura helbideratuta egon behar da eta txartel horrek ezin du inolako blokeorik eduki. Adibidez, txartel bat blokeaturik egon daiteke, oraindik ez bada PINa aktibatu.
- **Kanal anitzeko kontratua:** Kanal anitzeko kontratua formalizaturik edukitzea. BBVAk zerbitzu eta produktuak kontratatzeke bezeroen eskura jartzen dituen kanalak (web, app-a, banka telefonikoa, ATM, etab.) arautzen dituzten baldintzak ezartzen ditu kontratu horrek.
- **Telefono mugikorra eta helbide elektronikoa:** Telefono mugikorra eta helbide elektronikoa bat edukitzea BBVAren datu baseetan. Horretarako nahikoa da 91 224 94 26 telefono zenbakira deitzea, edo bbva.es webguneko eremu pribatuan sartzea.

26 urtetik 29ra, biak barne

Baldintza hau betetzeko titular guztiak adin tarte horretan egon behar dira, eta gainera, kontuko lehen titularrak baldintza osagarri hauek bete beharko ditu.

- **Txartelak:** ERANSKINEAN agertzen direnetako BBVA kreditu txartel bat edukitzea kontuan helbideratuta, eta hileroko berrikuspenaren aurreko lau hilabeteetan, gutxienez 7 eragiketa egiteko erabili izana. Txartelen eragiketen kopurua zenbatzeko, eragiketa kreditu txartelean kargatzen den eguna hartuko da kontuan.
- **Kanal anitzeko kontratua:** Kanal anitzeko kontratua formalizaturik edukitzea.



- **Telefono mugikorra eta helbide elektronikoa:** Telefono mugikorra eta helbide elektronikoa bat edukitzea BBVAren datu baseetan. Horretarako nahikoa da 91 224 94 26 telefono zenbakira deitzea, edo bbva.es webguneko eremu pribatuan sartzea.

vi. Agur Komisioak programaren aplikazioa:

BBVAren Agur Komisioak programa era automatikoki aplikatuko da, eta kontu bat eduki eta baldintzak betetzea nahikoa da bere abantailaz gozatzeko. Beraz ez da beharrezkoa atxikitze-buletina edo beste dokumentu osagarririk betetzea.

Programa honen helburu den ordainketaren aurrezkiari kalterik eragin gabe, produktu bakoitzaren adostutako baldintzak indarrean iraungo dute eta ez dira aldatuztat edo berrituztat hartuko, eta v. atalean adierazitako betekizunak ez badira betetzen, horiek izango dira aplikatuko direnak.

Bankuak kasu hauetan baliogabetuko ditu salbuespenak:

- Kontua baliogabetzen bada, arrazoia edozein bada ere.
- Salbuespen eskubidea izateko betekizun eta baldintzak betetzen ez badira.
- Bankuaren iritziz, titularretakoren batek iruzurrez jardun badu salbuespena lortzeko.

vii. Agur Komisioak programaren iraupena:

Xehatutako abantailen aplikazioa zehaztugabea da, eta BBVAk programaren baldintzak aldatu nahiz edonoiz baliogabetzeko eskubidea du.

Bankuak agur Komisioak programa baliogabetzea erabakitzen badu, onuradunei jakinaraziko die. Jakinarazpena bi hilabete lehenago egingo zaie programaren onuradunei eta banaka jakinaraziko da.

Edozein zalantza izanez gero:

Programa honen aplikazioari edo interpretazioari buruzko edozein zalantza izanez gero, bezeroek/titularrek BBVAren edozein bulegotara jo dezakete, edo idatziz helbide honetara:

BBVA Servicio de Atención al Cliente
Apartado de Correos 1598
28080 Madrid

"Agur Komisioak" ERANSKINA

Kontu arruntak

BBVA Kontu korrontea

BBVA Kontu arrunta

Ez-kontsumitzailearen Kontu arrunta, egoiliarren diren beste sektore batzuetarako, taloitegiarekin

Ez-egoiliarrentzako kontsumitzailearen kontu arrunta, taloitegiarekin

Ez-egoiliarrentzako ez-kontsumitzailearen kontu arrunta, taloitegiarekin

Egoiliarrentzako ez-kontsumitzaile kontu arrunta nominarekin eta taloitegiarekin

Ez-egoiliarrentzako kontsumitzaile kontu arrunta nominarekin eta taloitegiarekin

Kontsumitzailearen Aurrezki arrunta nomina edo pentsioarekin

Ez-egoiliarrentzako kontsumitzailearen aurrezki arrunta nomina edo pentsioarekin

Egoiliarrentzako pta. bihurturak aurrezki arrunta



Integración Unnim kontu arrunta
Integración Unnim aurrezki kontua
3D Integración Unnim Unnim kontu arrunta

Aurrezki-liburuxka

Libretón
Ez-kontsumitzailearen Libretón BBVA, taloitegi gabe
Ez-egoiliarrentzako Libretón, ordainsaririk gabe
Ez-kontsumitzaileentzako Libreta Máxima Ahorro

Erreferentziaturiko kontuak

BBVA erreferentziaturiko kontuak
Egoiliarren diren beste sektore batzuetarako ez-kontsumitzailearen Kontu erreferentziatua, taloitegiarekin
Ez kontsumitzailearen kontu erreferentziatua
administrazio Publikoarenak, taloitegiarekin
Ez-kontsumitzailearen Kontu erreferentziatua, ez-egoiliarrenak, taloitegiarekin
Ez-kontsumitzailearen Kontu erreferentziatua, ez-egoiliarrenak, taloitegiarekin
Kreditu erakundearen Mibor bista kontua
erreferentziatutako BBVA kontu korrontea
Integración Unnim Kontu erreferentziatua
3D Integración Unnim Kontu erreferentziatua
Murriztutako CX operatibadun aurrezki kontua

Kolektibo eta hitzarmen kontuak

Kolektibo kontua tasa finkoan
Kolektibo kontua euribor tasan,
Nominadun Kolektiboaren kontua, tasa finkoan
Nominadun Kolektiboaren kontua, euribor tasan
Langile Kolektiboaren kontua taloitegiarekin
Ez-kontsumitzailearen Kolektiboaren kontua, taloitegiarekin, egoiliarrenak
Prokuradoreen hitzarmen kontua
Bartzelonako farmazialarien kontua, taloitegiarekin
Gironako farmazialarien kontua, taloitegiarekin
Loteria administradoreen kontua
Estanko kontua tasa finkoa
Estanko kontua tasa Euribor
Contes hitzarmena
Compte Med 1
IBM Kontua
SGAE Kontua
Sinto hitzarmena
Familia Kontua
Lleidako Farmazeutikoen Kontua

Ez-kontsumitzaileen kontu gehiago: Negozio eta Saltokiak

Saltoki kontua tasa finkoan
Saltoki kontua tasa erreferentziatuan
Saltoki-Negozio kontua taloitegiarekin
ETE kontua tasa finkoan
ETE Kontua tasa erreferentziatuan
Saltoki/Frankizia Kontua tasa finko, egoiliarra
Saltoki/Frankizia Kontua tasa finko, ez-egoiliarra
Saltoki/Frankizia Kontua tasa erreferentziatuan, ez-kontsumitzaile
Saltoki ez-kontsumitzaileen BBVA Plus A
Saltoki ez-kontsumitzaileen BBVA Plus B



Negozio guztizko kontua
Uztartutako Negozio kontua
Enpresario kontua
Negozio konpromiso kontua
Kreditu arrunt kontua
kreditu kontua
Uztartutako Negozio Kreditu kontua
Mas Profesional Kontua
ETE Abantailak Kontua
ETE Konpromiso kontua

Ez-kontsumitzaileen kontu gehiago: Nekazaritza

Nekazal kontua tasa finkoan
Ez-kontsumitzailearen nekazal Kontua, taloitegiarekin, hitzarmena
Kooperatibak
Nekazal kontua tasa erreferentziatuan
Nekazal kooperatiben kooperatibista kontua
kooperatiba kideei mugatutako kreditu kontua
Negozio/Saltoki kreditu kontua
Nekazal negozio kreditu kontua
Kreditu nekazal-kontua
nekazal ordainketetarako bitartekaridun kreditu kontua
Nekazaritza kanpaina epe-laburrerako nekazal-kreditua

Beste kontu batzuk

Adinekoen kontua
Ez-kontsumitzaile kontu integrala, taloitegi gabe
Ez-kontsumitzailearen kontu maximoa, taloitegiarekin
Bat kontua
Clic-E Kontua, taloitegirik gabe
59+ Kontua
Integración Unnim Plus Pentsioa kontua
Integración Unnim Kontu hibridoia
Aukera kontua

Programan sartzen diren txartelak:

Gaztea Orain BBVA
Gaztea Gero BBVA
Orain Blue BBVA
Ondoren Blue BBVA
Negozioak Kreditua BBVA
Negozio Zordunketa BBVA
Business Electrón
Business Agrocoop BBVA
Agrocoop klasikoa
Orain BBVA
Ondoren BBVA
Ábaco
7 Txartela
Business CX
Aque Kreditua
Aqua Zordunketa